

## 1- ENTZUN AURRETIK

### 1.1 Kale-ikuskizunak

Kalean egiten diren ikuskizunak gustatzen zaizkizu? Zein?

- Musika
- Malabarismoa
- Dantza
- Magia
- Antzezlanak
- Estatuak bizidunak



 Talde handian komentatu. Ea zein den gehien gustatzen zaizuenak!

### 1.2. Mago famatuak

Ezagutzen al dituzu mago hauek? Jarri argazki bakoitzari bere izena:


1



2



3



4



  Komentatu lagun batekin zein den zein.

### 1.3 Euskal magoak

 Ezagutzen al dituzu euskal mago hauek? Kokatu izen bakoitza bere argazkian:

Txan magoa  Valen magoa

Eriz magoa

Tolito magoa



1



2



3



4

  Baieztatu zure erantzunak lagun batekin edo galdetu irakasleari.

## ENTZUN BITARTEAN

### 2.1 Esaldiak ordenatu

  Entzun Amaia eta Josuren arteko elkarrizketaren lehen zatia eta ordenatu zer gertatu den:

- Amaiak ezetz esango dio Josuri, ez duela magoa ikusi nahi, nekatuta dagoelako.
- Kaleko jendea mago bati begira dagoela ikusiko dute.
- Jendea dagoen lekura hurbildu dira bi lagunak.
- Josuk magoa ikustera joateko proposatuko dio Amaiari.
- Bidean doazela, jende asko ikusi dute elkartuta kalean Josuk eta Amaiak.
- Amaia eta Josu etxe aldera doaz, berriketan, fakultatetik atera ondoren.



  Komentatu aukeratu duzun esaldien ordena lagun batekin.

### 2.2. Hutsuneak bete

  Entzun orain bigarren zatia eta pasarte honetako hutsuneak bete.



**MAGOA.**— ... hiru edalontziekin, piloten jokoa egingo dut. Hurbildu zaitzete zuek ere, benetako magia ikusiko duzue.

**AMAIA.**— Josu!



**JOSU.**— Xxxxt! Goazen, goazen. Bost \_\_\_\_\_ 1 \_\_\_\_\_ izango dira, Amaia.

**MAGOA.**— Hemen dituzue hiru \_\_\_\_\_ 2 \_\_\_\_\_, eta gainean hiru \_\_\_\_\_ 3 \_\_\_\_\_ jarriko ditut, buelta emanda: horrela, edalontzi bakoitzaren barruan, \_\_\_\_\_ 4 \_\_\_\_\_ bat ikusiko duzue. Bai, gazte?

- |     |                 |     |             |
|-----|-----------------|-----|-------------|
| 1.- | a.- minuto      | 2.- | a.- pilotak |
|     | b.- minutuak    |     | b.- pilota  |
|     | c.- minutu      |     | c.- pilotek |
| 3.- | a.- edalontzi   | 4.- | a.- pilotak |
|     | b.- edalontziak |     | b.- pilot   |
|     | c.- edalontzik  |     | c.- pilota  |

  Komentatu zure aukerak lagun batekin eta adostu erantzun zuzenak.

2.3 Galderen erantzun egokiak aukeratu    

  Entzun berriro Amaia eta Josuren arteko elkarrizketaren bigarren zatia eta aukeratu galdera bakoitzaren erantzun egokia:

## 1.- Magoak egin duen trikimailua hau da:

- a.- Edalontzietan pilotak sartzen saiatu da.
- b.- Hiru pilota desagertu dira.
- c.- Pilota bat edalontzi barrutik desagertuko da.

## 2.- Nola atera zaio trikimailua magoari?

- a.- Primeran, eta jendeak txalotu egin du.
- b.- Gaizki, pilota erori egin zaio-eta.
- c.- Gaizki, baina ez da inor konturatu.

## 3.- Zer esan du Amaiak magoari buruz?

- a.- Oso txarra dela.
- b.- Gustura botako diola tomate bat aurpegira.
- c.- Benetako magia egin duela.

## 4.- Eta Josuk?


- a.- Txapela pasatzen badu, ez diola dirurik botako.
- b.- Magoa laster desagertuko dela.
- c.- Berak eta Amaiak ere magia egingo dutela.



  Komentatu lagun batekin zure erantzunak.

## ENTZUN ONDOREN

3.1 Jarri arreta hizkuntzan: aditz-formak    

 Josu eta Amaiarri gertatutako [anekdotaren laburpena](#) duzu segidan:

*Magoak hiru pilota jarri zituen mahaian eta piloten gainean hiru edalontzi buelta emanda. Horrela, edalontzi bakoitzaren barruan pilota bat zegoen. Lehendabiziko pilota desagertuko zela esan zuen magoak, baina erori egin zitzaion, denen aurrean, oso mago txarra zelako. Txistuka hasi zen jendea.*



Erreparatu aditzei. Ikusiko duzunez, lehenaldian dago kontaketa.

**Lehenaldia/Pasado**

Gertatu zaizkigun anekdotak kontatzen ditugunean, lehenaldiko formak erabiltzen ditugu:

- Egunaren barruan gertatutakoak **ez**
- Aditzoina + aditzlaguna (lehenaldian)

- Karten jokoa egin zuen magoak/ *El mago hizo el juego de las cartas.*
- Makilak erori zitzaizkion oso baldarra zelako. / *Se le cayeron los bastones porque era muy torpe.*
- Musikariari gitarra hondatu zitzaion / *Al músico se le estropeó la guitarra.*
- Txistuka hasi zen jendea. / *La gente empezó a silbar.*

3.2. Hutsuneak bete    

 Hutsuneak bete aditz-forma egokia aukeratuz, adibidean bezala:

*Adibidea: Kaleko musikariari mikrofonoa hondatu zitzaion eta bat-batean mutu geratu zen.*


Hauek dira dituzun formak: **zen/ginen/ziren/zitzaion/zitzaizkion/zuen**

- 1.- Malabaristari platerak erori \_\_\_\_\_ eta denak puskatu \_\_\_\_\_
- 2.- Pailazoak txisteak kontatzen hasi zirenean, plazako jendea alde egiten hasi \_\_\_\_\_
- 3.- Eskapismo-ikuskizuna oso txarra izan \_\_\_\_\_ : magoak ez \_\_\_\_\_ lortu kateak askatzea.
- 4.- Opera kantatu \_\_\_\_\_ tenoreak, baina desafinatu egin \_\_\_\_\_
- 5.- Kontzertua primeran hasi \_\_\_\_\_, baina bukaeran, aspertu egin \_\_\_\_\_ denak.
- 6.- Antzezlanaren erdian, aktoreari gidoia ahaztu \_\_\_\_\_.
- 7.- Bertsolariak poto egin \_\_\_\_\_, azken bertsoan hitz bat errepikatu zuelako.
- 8.- Dantzaria lurrera erori \_\_\_\_\_ irrist egin zuelako eta publikoa barrez hasi \_\_\_\_\_.



  Komentatu jarri dituzun aditz-formak lagun batekin.

### 3.3. Ikuskizun eskasa

 Zuri gertatu zaizun edo ikusi/entzun duzun anekdota bat kontatuko duzu: Ikuskizun “txar” bat (musika-kontzertua, kale-antzerkia, magia-emanaldia, zirkua...etab.). Zer gertatu zen?

Gogoratu 3.1. puntuko anekdotaren laburpena eta lauzpabost lerrotan, idatzi nolakoa izan zen: zer atera zen gaizki, zergatik, zein izan zen publikoaren erreakzioa...

---

---

---



---

---

---



*Madonna kantaria Londresen erori zen*

  Bukatutakoan, saiatu idatzi duzuna gogoratzen eta talde handian, azaldu zer gertatu zen. Nahi baduzu, argazki bat erabili laguntzeko. Ea zein den anekdotarik bitxiena!